



EBAZPENA, 2017ko ekainaren 21ekoa, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena. Ebazpen honen bidez ondoren zehaztutako deialdiko 6.4 artikulua ezarritakoaren arabera aurkeztutako eskaerak behin betiko ebazten dira. Deialdia hau da: 2016-2017 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen eskola-garraiorako banan-banako diru-laguntzetarako deialdia.

Hezkuntza Saileko sailburuaren 2016ko abenduaren 28ko Aginduaren bidez, 2016-2017 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko deialdia egin zen (2016ko abenduaren 29ko EHAA).

Hezkuntza Saileko sailburuaren 2017ko maiatzaren 15eko Ebazpenaren bidez, behin-behinean ebatzi zen aipatutako deialdiko 6.4 artikulua ezarritakoa, eta 2017ko maiatzaren 25an argitaratu zen "euskadi.eus" Web-guneko iragarki taula elektronikoan. Halaber, alegazioak egiteko epea ezarri zen.

Alegaziorik aurkeztu ez denez gero eta aipatutako deialdia arautzen duen Aginduaren 8. artikulua arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Deialdian araututako baldintzak betetzen dituzten ikasleen diru-laguntzak esleitzea behin betiko.


Bi mila eta hogeita hamazazpi koma laurogeita hamabost euroko (2.037,95 €) diru-kopurua esleitzea.

Bigarrena: Deialdiaren behin betiko esleipen hau eta onartuak izan diren eta izan ez diren eskabideen zerrendak argitara ematea "euskadi.eus" Web-guneko iragarki taula elektronikoan, interesdunak jakinaren gainean egon daitezten.

Hirugarrena: Behin betiko ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahalko zaio Hezkuntza Sailburuari hilabeteko epean, "euskadi.eus" Web-guneko iragarki taula elektronikoan, ebazpen honen berri ematen den hurrengo egunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko ekainaren 21ean.

Olatz Garamendi Landa
Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN